



SEGMENTAZIOA

Intelligent BT osasun propioaren interesa duten pertsonentzat zuzenduta dago, bereziki osasunaren jarraipen bat behar duten pertsonentzat. Hauek 40-80 urteko gizon-emakumeak dira, adin horretatik beherako pertsonak ez dituztelako hainbeste arazo izaten osasunean. 40 urte baino gutxiagokoak bereziki produktua erosiko dute osasun propioaren interesa dutelako soilik eta ez gaixotasun batengatik. Produktu teknologikoa izan arren, nahiko erraza da instalatzeko eta ulertzeko.

Partikularren etxeetan aparte, osasun zentroetan ere egongo dira. Osasun zerbitzu publikoetan Intelligent BT instalatuta izatea medikuen lana asko erreztuko luke, gernuearen analisia hiru egun behar direlako eta gure produktua momentuan analizatzen duelako.

Gaur egun, pertsona gehienak osasuntsu mantentzea nahi dute, osasunaren informazioa eskuragarri izateagatik, pertsonengan osasun propioaren interesa piztu da. Duela 25 urteko datuekin alderatuta, norberaren osasunari buruzko interesa %68 handitu da, gutxi gorabehera, hainbat artikuluen arabera. Beste aldetik guztiz kontrako egoera dago aldi berean; hamarkada batean baino gehixeagotan, 2030erako, Espainiako 27 milioi helduk, gizonen %80k eta emakumeen %55ek, gizentasun edo gehiegizko pisu arazoak izango dituela aurreikusten da. Ikerketa baten arabera, 2016an 24 milioi pertsona zeuden Espainian gehiegizko pisuarekin, hau da, Espainiako biztanle helduen %70. Hamar urte lehenago, 21 milioi ziren.

Bi gauza hauek gure enpresari onurak ekar ditzake, jende asko erosteko interesa izan al dezakelako: osasun propioaz interesa duenak, bere gorputzean egunero egoten diren aldaketak jakiteko, eta beste aldetik, gizentasuna dutenak, gaixotasun arazo gehiago izan ahal dituzte, horregatik beraien osasunaren jarraipen bat eramatea komeni zaie.

Gure produktuari esker etxetik atera gabe osasunaren eguneroko jarraipen bat izan dezakegu minutu bat baino gutxiagoan.